

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2053

AGINDUA, 2023ko apirilaren 19koa, Hezkuntzako sailburuarena, Gernika-Lumoko (Bizkaia) «San Fidel Ikastola» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren baimena aldatzeko dena.

Gernika-Lumoko (Bizkaia) CPEIPS «San Fidel Ikastola» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren entitate titularrak hasarazitako espedienteaz aztertu da, zeinaren bidez Lehen Hezkuntzako unitate bat kendu eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan unitate bat gehitzeko baimena eskatzen duen.

Espediente horren izapideak araudiak ezarritako prozedura jarraituz egin dira; gainera, indarrean dauden arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio eta arlo horretan eskumena duten erakundeek egin dituzte txostenak.

Arau hauek ikusi dira: 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko ikastetxe pribatuen baimenei buruzkoa (apirilaren 9ko BOE); 131/2010 Errege Dekretua, otsailaren 12koa, (martxoaren 12ko BOE) apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua aldatzen duena; 215/2004 Dekretua, azaroaren 16koa, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulua batzuk indarrean iraunarazten dituen (azken dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan) (azaroaren 19ko EHAA), eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako legeak. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ondoren zehazten den ikastetxeari baimena ematen zaio, 2023-2024 ikasturte-tik aurrera, Lehen Hezkuntzan unitate bat kentzeko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan unitate bat gehitzeko:

Kode-zenbakiak: 014526 (EAE) eta 48005469 (unibertsala).

Izen generikoa: Haur, Lehen eta Bigarren hezkuntzako ikastetxe pribatua (HLBHIP)

Izen espezifikoak: «San Fidel Ikastola».

Titularra: «Obispado de Bilbao»

Helbidea: Carlos Gangoiti 11

Udalerrria: Gernika-Lumo

Lurralde Historikoa: Bizkaia

Baimena: 2023-2024 ikasturte-tik aurrera, Lehen Hezkuntzan unitate bat kentzeko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan unitate bat gehitzeko.

Ikastetxearen osaera:

– Haur Hezkuntzako 1. zikloa: 9 unitate:

• 3 unitate 0 - 1 urte bitarteko haurrentzat, 8 ikaspostuko edukierakoa bakoitza.

• 2 unitate 1 - 2 urte bitarteko haurrentzat, 13 ikaspostuko edukierakoa bakoitza.

- 4 unitate 2 - 3 urte bitarteko haurrentzat, 18 ikaspostuko edukierakoa bakoitza.
- Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 9 unitate, 218 ikaspostuko edukierakoa.
- Lehen Hezkuntza: 12 unitate, 300 ikaspostuko edukierakoa.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 10 unitate, 300 ikaspostuko edukierakoa.
- Batxilergoa: «Zientziak eta Teknologia», «Giza eta Gizarte Zientziak» eta «Orokorra» modalitateak: 4 unitate, 140 ikaspostuko edukierakoa.
- Hezkuntza Berezia: 2 gela ireki.

Bigarrena.– Ikastetxeak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxearen titularraren erantzukizuna izango da baldintza horiek betetzea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen edo dirulaguntzen deialdien bitartez laguntzarik lortuko denik.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen kontra aukerako berraztertzeke errekurtsioa aurkez dakioko Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 19a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.